

2022ko EKAINAREN 11a

ANAIZ FUNOZAS, JEAN DANIEL ELICHIRY-ren hitz hartzea

Apirilaren 8an, 32 urte bete ziren Jakes Esnal, Jon eta Unai Parot presondegiratu zituztenetik. Gaur egun, hirurak aske egonen lirateke baldin-eta ez balitzaie salbuespen neurriarik aplikatu. Si vis pacem, para iustitiam ! Bakea nahi baduzu, presta ezazu justizia !

Badirudi latinezko erranaldi hau arrotza zaiela magistratu eta parketelari batzuei. Jakes Esnalen baldintzapeko askatasun eskaeraren erantzuna 2022ko Uztailaren 21era gibelatuz, badirudi Zigorren Aplikaziora Ganbarak bat egiten duela Parkete Nazional Antiterrorista eta Parkete orokorreko epaileen logikarekin.

Erabakia hau edo hobeki erran erabakirik eza onartezina iruditzen zaigu ! Epe laburreko irtenbide bat ez atzemateko jarreraren tematzen dira magistratuak. Erabaki hauen giblean ezkututzen diren zinezko arrazoiak zeintzuk diren galdetzen dugu gaur.

Lehen instantziako epaileek kontuan hartzen duten Euskal Herriko testuinguruaren bilakaera baikorra ukatzea ONARTEZINA DA !

Gauzak horrela, deriba hiltzaile hau justifikatu beharko dute bake iraunkorra eraikitzeko eginahalean ari diren Euskal Herriko jendarte zibilaren ordezkarien parean.

Hemendik egun batzuetara, ekainaren 15ean, Jon Paroten baldintzapeko askatasun eskaeraren audientziaren erabakiaren berri jakinen dugu.

Bi gizon hauen askatasunaren aldeko erabakiak hartuko ez balira, egiazko Estatu mendeku baten parean aurkituko ginateke.

Larritasunez eta irmotasunez interpelatu nahi dugu Macron Frantses Estatuko lehendakaria. Izan ere, gisa honetako prozesuak plantan ezartzen diren herrietako gobernu gehienak ez bezala, bake prozesuan ez inplikatzeko hautua egiten du.

Macron jauna, noiz babestuko dituzu lurralde honetako jendarte zibila eta hautetsiak eramaten ari diren dinamika baikorra ?

Lurralde honetako herritarrek bizi duten problematika garrantzitsueenatariko batekiko isiltasunak eta aintzatespen faltak umiliazio sentimendu bat eragiten du. Zoritxarrez, sentimendu hori belaunaldiz belaunaldi transmitzen da.

Euskal Herriaren geroa eta zure agintaldia markatuko duen bake prozesu honen segidaren edo blokearen ARDURADUNA zara!

Macron jauna, Historiarekin hitzordu bat dugu. Gu presente izanen gara, zuk ez ezazu hitzordua huts egin !

Euskal Herriko jendarte zibil anitza doktrina politiko eta judizialen erroto aldaketa baten beha da. Bai Ekainaren 15 eta Uztailaren 21 ean hartuko diren erabakiak, bai PNATaren jarrera inflexioaren edo oztopoen seinale izanen dira. Jon Parot Eta Jakes Esnalen askatasuna posible egiten ez badute, Ipar Euskal Herri osoaren blokeoa antolatuko dugu uda honetarako.

Jon, Jakes, Unai Gurekin !
Orain Presoak !

